



## 4. DANOBATGROUPeko SALMENTA BALDINTZA OROKORRAK

### 4.1. SARRERA

Salmenta baldintza orokor hauek saltzailearen eskaintza osoaren parte dira, eta, beraz, bi aldeek onarpena eskatzen dute. Lehia kasuan, Salgaien nazioarteko salerosketarako kontratuei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (Viena, 1980-04-11) aplikatuko da.

Salmenta baldintza orokor hauetan berariaz zehazten ez den edozein baldintza edo termino, 2001eko ORGALIMEren (European Engineering Industries Association) baldintza orokorrek zuzenduko dituzte.

Saltzailearen proposamenak ez dira lotesleak. Produktuen etengabe-ko garapen eta eboluzioa dela eta, saltzaileak proposamen honetan jasotakoak aldatzeko eskubidea gordetzen du beretzat, alde zuretik jakinarazi beharrik gabe.

Eroslearen eskaeraren onarpena saltzaileak idatziz baieztatzen duenean, kontratua indarrean sartzen dela ulertuko da. Saltzaileak igorritako eskaeraren onarpen dokumentuan zehaztutako baldintza eta terminoak lotuta egongo da kontratua, ez bada erosleak horiek jaso bezain laster atzera bota dituela.

### 4.2. ENTREGA EPEA

Ondoko baldintzak (biak) bete diren datatik aurrera hasiko da entrega epea kontatzen:

- Kontratuaren sinadura
- Erosleak egindako aurrerakinaren ordainketa saltzaileak jaso duenean.

Entrega data ondoko kasuetan atzeratu ahalko da:

- Ezinbesteko kasuetan, hala nola gerrak, mobilizazioak, industriako gatazka edo lehiak, suteak, lurrikarak, garraioko istripuak edo aurretik jakin ezin den bestelako edozein inguruabar.
- Erosleak kontratuan jasotako betebeharrerako eta/edo konpromisoetako edozein betetzen ez duenean, besteren artean hauen hornikuntza barne: planoak, informazio teknikoa, inportazio lizentziak, makinara erantsi beharreko osagarriak, eta bi aldeek artean adostutako beste edo zein konpromiso edo betebeharrak.

Entrega epearen onarpena eta horren betetzea bi aldeek gerora alderdi tekniko edo komertzialei buruz hartutako erabakiei baldintzatua egongo da, kontratua sinatzeko unean erabakitzeke geratu baziren.

Makinaren fabrikazio aldiaren zehar saltzaileak erosleari planoak edo instalazio eskakizunak bidaltzen badizkio horien inguruan erosleak idatzizko onarpena eman diezaien, erosleak dokumentu horiek jaso eta gehienez ere 10 eguneko epean saltzaileari itzuli beharko dizkio -dela idatzizko onarpenarekin, dela kasuan kasuko eragozpenekin-.

Entrega data gisa definitzen da saltzailearen instalazioetan makinari aurretiko onarpena eman zaioneko data.

Saltzaileak entrega epea bete duela joko da, baldin eta adostutako dataren aurretik makina saltzailearen lantegitik atera bada, edo saltzaileak makina bidaltzeko prest dagoela adierazten badiu saltzaileari.

Makinaren bidalketa data makina bidaltzen den data dela joko da, eskaeran/kontratuan hitzartuta dagoen moduan eta kontuan hartu gabe zenbait osagarri bereizirik eta/edo data ezberdinetan bidali behar direla.

### 4.3. ENTREGA BALDINTZAK

Makinaren prezioak eskaintzan zehaztutako entrega baldintzei egiten diete erreferentzia (INCOTERMS 2000).

### 4.4. ARRISKUEN ETA JABEGOAREN TRANSFERENTZIA

Galera arriskuak edo makinaren eta bere ekipamendu osagarriari eragindako kalteak erosleari transferituko zaizkio produktua eroslearen esku jarri den momentuan, eskaintzan ezarritako entrega baldintzei jarraituta (INCOTERMS 2000).

Produktuaren jabetza ordainketa osotasunean egin denean transferituko da.

Erosleak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu saltzailearen jabetza babesteko (produktuaren balioa estaliko duen aseguru poliza barne), goian adierazitako galera arriskuak edo makinaren gaineko kalteak erosleari transferituak zaizkion momentutik, jabetza erosleari transferitzen zaion arte.

### 4.5. PREZIOAK ETA ORDAINKETA BALDINTZAK

Prezioek ez dute zergarik barnean. Hauek dira ordainketa egiteko baldintzak:

Kontratuaren/eskaeraren guztirako zenbatekoaren %30eko hasierako ordainketa bat, saltzailearen bankuan banku transferentzia bidez, eskaera egiten den datatik gehienez ere astebeteko epean.

Kontratuaren/eskaeraren zenbatekoaren gainerako %70a saltzailearen bankuan banku transferentzia bidez, beranduenez saltzailearen instalazioetan makinari aurretiko onarpena ematen zaionetik zazpi egunera.

### 4.6. KONTRATUARI EMENDAKINAK

Eskaera baieztatu ostean erosleak eskaeraren inguruan eskatzen duen edozein aldaketa/zuzenketa, saltzailearekin idatziz adostuta eta hark onartuta egingo da.

Produktuaren fabrikazio aldiaren edo aldi hori amaitu ondoren erosleak eskatutako edozein aldaketa, soilik egin ahalko da aldaketa eskaera egiten denean eskaera gehigarri gisa egiten bada, eta hau kontratu/eskaera originalari erantsen bazaio.

Honek kontratuaren/eskaeraren irismenaren berrikuspena/aldaketa eska lezake, baita prezioarena eta/edo entrega epeena ere.

### 4.7. BERMEA

#### 4.7.1. Bermearen irismena

Jarraian zehazten diren baldintzen arabera saltzaileak bere gain hartzen du edozein osagaiaren edo pieza baten aldaketa, diseinu akatsek edo fabrikazio prozesuan izandako akatsek makinaren funtzionamendu txarra eragiten badute, bermealdiak iraun bitartean. Iraupena hau da:

- 12 hilabete edo makinaren 2.000 lan ordu, eta horietatik eroslearen lantegian azken onarpena eman zaion datatik lehenagoko gertatzen dena.



Bermeak estaltzen dituen kostuak honako hauek dira:

- Saltzailearen teknikarien eskulana (bidai eta egonaldi gastuak ez dira sartzen)
- Osagai edo pieza akastunen ordezkapena
- Ordezko osagai edo piezen bidalketa gastuak

Berme aldiaren barruan makinari egindako aldatetok, piezen ordezkapenek edo zerbitzu teknikoek ez dute aipatu aldi hori luzatuko.

Berme aldiaren konpondutako edo ordezkaturako osagai edo piezei dagokien berme aldia, makinaren berme aldiarekin batera amaitzen da.

Ordezkatutako edozein elementu saltzailearen eskura egon beharko du.

Edozein kasutan, berme aldiaren balioa makina saltzailearen instalazioetatik atera deneko datatik 15 hilabete baino gehiago ez da luzatuko.

Saltzailea ez da izango inolaz ere erabilera galeren, produkzio galeren, irabazi galeren, kontratu galeren edo bestelako ezein zeharkako edo egoeraren arabera galeren erantzulea.

#### 4.7.2. Bermea indarrean mantentzeko erosleak bete beharreko baldintzak

Makinaren instalazioa saltzailearen teknikariek egin beharko dute edo, kasuan kasu, saltzaileak baimendutako teknikariek. Baimendu gabeko teknikariek makinaren instalazioa egitea bermea ezerezteko arrazoi izango da.

Makinari egindako aldateta eta/edo zerbitzu tekniko orori saltzaileak aldeztu aurretik baimena eman beharko dio.

Makinaren saltzaileak onartutako ekipoak edo osagaiak baino ezin izango dira erabili/erantsi.

#### 4.7.3. Bermetik kanpokoak:

1) Bermea ez da aplikatzen (ez du estaltzen) ondoko kasu hauetan:

- Erabilera arruntagatik gastatutako piezak
- Makinarekin batera emandako erabilera/mantetze lanen eskuliburuetan jasotako jarraibideak ez betetzeagatik eragindako hutsegiteak.
- Garraioan zehar eragindako kalteak garraioa eroslearen ardura denean, adostutako Incoterma zein den, horren arabera.
- Saltzailearen oniritzi gabe egindako hutsegiteak eragindako akatsak.
- Erosleak egindako konponketa desegokiek eragindako hutsegiteak
- Kanpo eragileek eragindako hutsegiteak, hala nola ekaitzak, uholdeak, suteak edo makinaz kanpoko bestelako edozein eragile.
- Makinarekin modu desegokian lan egiteagatik eragindako hutsegiteak, edo programazio akatsek eragindakoak
- Saltzaileak onartu ez arren, erosleak muntatu eta makinarekin batera erabilitako osagarri desegokien erabilerak eragindako hutsegiteak.
- Akatsak zimenduetan
- Makinaren inguruko bibrazioek eragindako hutsegiteak
- Giro tenperaturaren aldateta bortitzek eragindako hutsegiteak, edo eguzkipean jartzeak, edo makinaren eragin dezakeen beste edozein bero edo hotz iturri eragindakoak.
- Bermeak ez ditu estaltzen pertsonen edo ondasunen materialei eragiten zaizkien kalteak.

2) Makinari egin beharreko mantentze lan orokorrerako lanak (eros-

learen ardurapekoak dira hauek). "Mantentze lanerako eskuliburuan" deskribatzen dira.ndbuch"

#### 4.8. SALTZAILEAREN BERANDUTZA

Entrega epea 4 astetan baino gehiagotan gainditua izan bada, saltzailearen berandutza sartuko da.

Berandutza kasuan, erosleak makinaren prezioaren %0,5 jasotzeko eskubidea izango du kalte-ordain gisa, atzerapen aste oso bakoitzeko. Kalte ordaina ezingo da inolaz ere makinaren prezioaren %0,5 baino gehiago izan.

Saltzaileak entregatze partzialak egin ahalko ditu. Berandutzak soilik hornikuntzaren zati bati eragiten badiu, kalte ordaina soilik hornitu ez den zatien prezioaren arabera kalkulatu da.

Berandutzagatik kalte ordaina ez da bidezkoa entregaren atzerapean erosleari inolako kalterik ez badiu eragin, edo pairatutako kalte ordaindu beharreko kalte ordainaren zenbatekoa baino askoz ere txikiagoa izan bada.

Saltzailearen berandutza kasuan eroslearen eskubideak klausula honetan sakonki aratuak daude. Kanpo geratzen da legokiokeen beste edozein ekintza. Saltzaileak ez du inolaz ere ezein zeharkako edo ondoriozko kalterengatik erantzungo, hala nola diru sarreren galera, ekoizpen galera, irabazi galera, etab.

#### 4.9. ESKAINTZAREN BALIOZKOTASUNA

Dieses Angebot gilt für 60 Tage ab dem Tag der Ausstellung.

#### 4.10. SALTZAILEAK EMANDAKO ZERBITZUAK: INSTALAZIOAREN AURRE ONARPEN PROBAK ETA AZKENEKO ONARPEN PROBAK

##### 4.10.1. Kontratuan/eskaintzan jasotako zerbitzuekin lotutako baldintza orokorrak

Makinaren onarpenerako probak saltzailearen onarpen protokolo estandarrean definitutakoaren arabera egingo dira.

Aurre onarpen probak saltzailearen lantegian, eta azken onarpenaren probak eroslearen instalazio desberdinetan. Bi proba motak ere, saltzailearen eta eroslearen langileen asistentziarekin egingo dira.

Eroslea, edo erosleak izendatutako ordezkari bat ez bada saltzailearen lantegira joaten aurre onarpen probak asistitzeko saltzaileak ezarritako datatik hamar eguneko epean, saltzaileak probak bere kabuz egiteko eskubidea izango du eta erosleari proba horien emaitzen berri emango dio. Saltzailearen onarpen protokolo estandarrean ezarritako eskakizunak betetzen badituzte emaitza horiek, aurre onarpena balioduna dela eta honek eroslearen oniritzia duela kontsideratu da, eta, ondorioz, makinaren bidalketa baimenduko da.

Erosleak saltzailearen esku jarriko ditu jasokuntza sistemak eta/edo makina bere behin betiko tokian kokatzeko eta makinaren instalazio prozesua aurrera eramateko beharrezko ekipamenduak.

Gehigarri gisa, makinaren funtzionamendurako beharrezkoak diren energia elektrikoaren, aire konprimatuaren, uraren, eta abarren hartuneen ardura izango du erosleak. Aipatu hartuneen ezaugarriek saltzaileak emandako zehaztapenen eta eskakizunen arabera izan beharko dute (lay-out-aren plano orokorra, zimenduaren planoak...) eta makinaren instalazio lanen hasieran eskuragarri egon beharko dute. Goian aipatutako eskakizunetako edozein saltzailearen esku jartzeko berandutzeak izanagatik eragindako kostu gehigarrien erantzule izango da eroslea, edo baita instalazio lanen etetearena ere.

Lanerako instalazio lanek iraun bitartean saltzailearen langileen segurtasun fisikoa bermatzeko beharrezko bitarteko eta baldintzak jarriko ditu erosleak.

Behin makina bere helmugako kokapenera iritsita, saltzailearen langileak makinaren instalazioari ekitea eta makinaren azken onarpeneko probak egitea ahalbidetuko du erosleak.

Azken onarpeneko probak atzerapenez egin badira eta horren ardura saltzaileak ez badu, kostu gehigarrien erantzulea izango da eroslea.

Eskaintzan berariaz adierazita ez badago, eskaintako prezioan ez daude eroslearen ordezkarien bidai, egonaldi eta mantenu gastuak barne, aurre onarpenean zehar.

Kontratuak/eskaerak barne baldin badu lanean aritzeko eta/edo mantentze lana egiteko ikastaroak saltzaileak emateko betebeharra duela, ikastarorako aurreikusitako data eta orduetan ikastaroan parte hartuko duten pertsona guztiek joateko aukera izateko konpromisoa hartuko du erosleak.

#### **4.10.2. Aurre onarpen probak saltzailearen lantegian**

##### **4.10.2.1. Aurre onarpen proben protokolo orokorra**

Saltzailearen aurre onarpen proben protokoloari jarraikiz probatuko da makina.

Aplikagarri denean, kanpo elementuekin interface probak ere egingo dira, hala nola zamalanak, piezen amarratzea eta beste batzuk.

Behin aurre onarpen proben protokoloa amaituta, honakoa erosleak eta saltzaileak sinatuko dute, eta biek elkarrekin bidalketa datak zehaztuko dituzte.

##### **4.10.2.2. Aurre onarpen proben protokoloa eroslearen pieza mekanizazio probarekin**

Aurre onarpen proben artean eroslearen pieza baten mekanizazio proba egongo da, soilik kontratuan/eskaeran jasota badago, piezaren planoak eranskin gisa dituela, eta kontratuak adierazten badu saltzailearen aldetik konpromisoa mekanizazio proba hori saltzaileak proposatutako mekanizazio prozesu baten arabera egiteko.

Aurre onarpen probek eroslearen piezaren mekanizazioa barne badute, pieza horretarako beharrezkoak diren mekanizazio erremintak eta programak prestatu beharko ditu saltzaileak, saltzaileak proposatutako mekanizazio prozesu baten arabera.

Eroslearen piezaren mekanizazioak aurre onarpen probek iraun bitartean erreminta eta/edo hornikuntza bereziak behar izanez gero (mozketa erremintak, hozgarria, etab.), erosleak horren kostua bere gain hartu beharko du, eta saltzaileari hornitu beharko dizkio, honek adierazitako epeetan.

Aurre onarpenerako erabiliko diren eroslearen piezak, erosleak berak ordaindu eta hornitu beharko ditu adostutako data baino lehen, adostutako kopuruan, eta pieza landu gabearen gainean adostutako zehaztapenen arabera. Eroslearen onarpen piezak ez bazaizkio saltzaileari bidaltzen goian ezarritakoari jarraikiz, erosleak simulazio pieza sorta bat hornitu beharko du.

Erosleak probarako piezen, erreminten eta/edo beste hornidura batzuen horniduran atzerapena izanez gero, automatikoki entrega epean luzapen bat eragingo du, eta atzerapenak iraun bezainbeste iraungo du honek ere. Arrazoi honengatik sortutako kostuak erosleak estali beharko ditu.

#### **4.10.3. Eroslearen lantegian instalazioa egitea eta martxan jartzea**

Instalazio lanei ekin aurretik, makina kokatuko den eremua erabat definiturik eta oztoporik gabe egon behar du.

Instalazioak zimendua behar duen orotan, honek erabat amaituta eta baldintza onetan egon beharko du makinaren instalazioari ekin aurretik erabili ahal izateko. Zimendua ongi prestatuta eta egina egotea eroslearen ardura da.

Kutxak deskargatu eta ireki bitartean saltzaileak bertan egoteko eskubidea izango du, eta lan hauek egitea eroslearen ardurapekoa izango da. Aldi berean, erosleari behar beste jarraibide emango dizkio saltzaileak, kutxa zimenduan behar bezala kokatzeko.

Makinaren instalazioa eta martxan jartzea saltzailearen ingeniariaren esku egongo da, edo saltzaileak baimendutako ordezkarien esku.

Eskaintzan berariaz eskainita egon ezean, saltzaileak produktua- ren funtzionamendu egokia bermatuko du baldin eta instalatuta dagoen tailerraren barneko tenperatura 25°Ckoa izanik, gehienez ere  $\pm 10^\circ\text{C}$ ko gorabeherak badaude.

Eskatuz gero, saltzailearen ingeniariari telefonoa erabiltzeko aukera emango die erosleak, eta mekanizaturako eta lanerako beharrezko erremintak emango dizkie. Erosleak olioak, lubrifikatzaileak, eta beharrezkoak diren produktu guztiak jarriko ditu saltzaileak erabil ditzan. Erosleak ere jasokuntzarako ekipamendua jarriko du - segurua eta egokia- instalatzen ari diren makinaren zatirik handienak jaso eta manipulatu ahal izateko.

#### **4.10.4. Azken onarpenerako probak eroslearen lantegian**

##### **4.10.4.1. Azken onarpenerako probaren protokolo orokorra eroslearen lantegian**

Behin instalazio lanak eta martxan jartzeko lanak amaituta, makina azken onarpenerako probaren protokolo orokorraren arabera onartuko da. Bi aldean artean adostuta egon ezean, eroslearen lantegian egingo diren azken onarpenerako probak saltzailearen lantegian aurre onarpen probetan zehar egindakoen berdina izango dira.

Erosleak ez du baimenik izango ez makina, ez osagarrietako ezein erabiltzeko, bi aldeek azken onarpenerako protokoloa sinatu arte.

Erosleak makina erabiliko balu saltzailearen idatzizko baimenik gabe, erosleak makina onartu duela ulertuko da, onarpenerako protokoloa sinatu zein ez.

Azken onarpen protokolo baldintza arautzaileei egindako edozein aldaketa edo gehikuntza, soilik aplikagarria izango da saltzaileak aldeez aurretik idatzizko baimena eman badu.

Behin azken onarpenerako probak behar bezala egin ostean, erosleak eta saltzaileak azken onarpenerako protokoloa sinatuko dute.

Behin azken onarpenerako protokoloa sinatuta, produkzioan dagoen produktua erabiltzeko baimena ematen zaio erosleari, berme epea automatikoki abiatuz, salbu hau zegoeneko martxan baldin bazegoen 4.7.1 klausulari jarraikiz.

##### **4.10.4.2. Azken onarpenerako proben protokoloa eroslearen lantegian eroslearen pieza baten mekanizazio probarekin**

Azken onarpen proben artean eroslearen pieza baten mekanizazio proba egongo da, soilik kontratuan/eskaeran jasota badago, piezaren planoak eranskin gisa dituela, eta kontratuak adierazten badu saltzailearen aldetik konpromisoa mekanizazio proba hori saltzaileak propo-



satutako mekanizazio prozesu baten arabera egiteko.

Azken onarpen probek eroslearen piezaren mekanizazioa barne badute, pieza horretarako beharrezkoak diren mekanizazio erremintak eta programak prestatu beharko ditu saltzaileak, saltzaileak proposatutako mekanizazio prozesu baten arabera.

Eroslearen piezaren mekanizazioak azken onarpen probek iraun bitartean erreminta eta/edo hornikuntza bereziak behar izanez gero (mozketa erremintak, hozgarria, etab.), erosleak horren kostua bere gain hartu beharko du, eta saltzaileari hornitu beharko dizkio, honek adierazitako epeetan.

Azken onarpenerako erabiliko diren eroslearen piezak, erosleak berak ordaindu eta hornitu beharko ditu adostutako data baino lehen, adostutako kopuruan, eta pieza landu gabearen gainean adostutako zehaztapenen arabera (materialaren harroketa, baldintza geotermikoak, gogortasuna, etab.). Eroslearen onarpen piezak ez bazaizkio saltzaileari bidaltzen goian ezarritakoari jarraikiz, erosleak simulazio pieza sorta bat hornitu beharko du.

Probarako piezen, erreminten eta/edo beste hornidura batzuen horniduran atzerapena izanez gero, saltzaileari eragindako balizko kostuak erosleak estali beharko ditu.

#### 4.11. DISEINUA, PLANOAK, DOKUMENTAZIO TEKNIKO ETA KATALOGO ARGIGARRIAK

Makinen espezifikazio teknikoei buruzko aldaketak katalogoetan, publikitate materialean edo hedapenerako beste edozein material motetan sartzeko eskubidea erreserbatzen du saltzaileak. Informazio mota hau informazio tekniko orokorra izanik, ez du inolako betebeharririk sortzen inolako kontratu motatan.

Plano guztiak, diseinuak, dokumentazio teknikoak, softwarea, fabrikaziorako eta/edo muntaketarako osagaien eta/edo piezen edozein informazio edo jarraibide, edo saltzailearen makinari lotutako edozein dokumentu, saltzailearen jabeagoak dira.

Hirugarrenei ezin zaizkie kopiak egin edo informazioa transferitu, saltzaileak idatzizko baimena eman ezean.

#### 4.12. ZIMENDURAREN PLANOAK

Makinarentzako zimendua eroslearen ardurapekoa da.

Zimenduaren zehaztapen orokorrak, makinaren lay-out-a, ainguraketa torlojuak, zamen distribuzioa, etab. emango ditu saltzaileak, erosleak kontratatutako obra zibileko espezialistak oinarria prestatzea errazte aldera.

#### 4.13. ARBITRAJEA

Kontratuarekin zuzeneko edo zeharkako harremanean sor litekeen eta laguntasunezko adostasun bidez konpon ezin litekeen edozein eztabaida, desadostasun, erreklamazioa edo erlazionatutako afera, Gipuzkoako (Espainia) Merkataritza Ganbarako Arbitraje Zerbitzuan konpontzen amaitu beharko du. Honek arbitraje prozedura kudeatuko du eta bere arau propioei jarraikiz arbitro bat izendatuko du. Legedi aplikagarria: Espainiako legeria eta 1980-04-11ko Vienako Konbentzioa.

#### 4.14. AZKEN XEDAPENAK

Saltzailearen aurka egin ditzakeen erreklamazioek ez diote erosleari ahalmenik emango kontratuan ezarritako ordainketak eteteko edo horien gaineko kenketak egiteko. Eztabaida edo gatazka oro, baita erlazionatutako faktura gehigarriak ere, baleude, banan-banan egingo

den akordio batekin bideratuko da, bi aldeen artean negoziatu beharko dena.

Salmentako baldintza orokor hauetako klausularen baten deuseztasun deklarazioak edo ezargarritasun ezak ez dakar gainerako klausula eta baldintzen baliogabetzea, eta efektu guztietara balekoak izaten jarraituko dute.

Deusez edo ez ezargarri deklaraturako hitzarmena ordezkaturako kontsideratuko da deusez edo ez ezargarri deklaraturako horrek xede duen helburu ekonomikora gehien hurbiltzen denagatik.

#### 4.15. ERANTZUKIZUNAREN MUGA

Kontratuan jasotako edo hari lotutako oinarri legala, atzerapena, hornikuntza akastuna, debekatutako jarduketak edo beste betebeharrak batzuen betetze eza egotea aintzat hartu gabe, eta kontratuan edo goragoko aginduzko lege arauan eskubide hau berariaz aitortu ezean, erosleak ez du baimenik izango kalte galerak erreklamatzeko.

#### 4.16. ESPORTAZIO POLITIKA

##### 4.16.1. Lege eskakizunak

Kontratu hau erabilera bikoitzeko gaien gaineko EB 388/2012 eta EB 1232/2011 Europako Araudien menpekota da, bai eta abenduaren 28ko 53/2001 Espainiako Legearen eta abenduaren 12ko 2061/2008 Errege Dekretuaren menpekota ere.

Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetara (EB25) egindako esportazio oro, erabilera bikoitzeko materiala bada, defentsa eta erabilera bikoitzeko esportazio / espedizio lizentzia beharko du.

Eskakizun zehatz batzuk betez gero, erabilera bikoitzeko materiala esporta daiteke, baimen orokorraren baitan, EB 149/2003ri jarraikiz kontzertatutako herrialdeetara: Australia, Kanada, AEB, Japonia, Zelandia Berria, Norvegia eta Suitza.

Zerbitzurako ordezkoen esportazioak material berriaren salmenta arau berberak bete behar ditu.

##### 4.16.2. Eroslearen konpromisoa

- Erosleak munduko edozein tokitan hirugarren bati saltzaileak hornitutako produktuak transferituz gero, baita horri dagokion dokumentazioa ere, aipatu transferentzia zein euskarritan egiten den aintzat hartu gabe, erosleak araudi eta erregulazio nazional eta nazioarteko guztiak bete beharko ditu (bir)esportazioaren kontrolari dagokionez. Edozein kasutan, erosleak Espainiako, Europar Batasuneko eta Ameriketako estatu Batuetako indarreko araudia eta erregulazioak bete beharko ditu (bir)esportazioaren kontrolari dagokionez.
- Beharrezkoa balitz esportazio kontrolaren egiaztapenak egitea, saltzaileak hala eskatuta, erosleak berehala eman beharko dio erosleak berak emandako ondasunei, lanei eta zerbitzuei buruzko informazio guztia (azken bezeroa, helmuga zehatza eta erabilera konkretua), baita egon litekeen esportazio kontroleko edozein murrizketaren berri ere.
- Erosleak saltzaileari kalteak ordainduko dizkio eta erosleak esportazio kontrolaren araudiaren eta erregulazioen ez betetzeari lotutako edozein erreklamazioaren, prozesuren, ekintzaren, isunen, galeren, kosturen eta kalte-galeren aurrean erantzukizun orotatik salbuetsiko du. Era berean, horren ondorioz sortzen diren galera eta gastu guztiak konpentsatuko dizkio saltzaileari, ez betetze hori eroslearen erruz gertatu ez denean izan ezik.